

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2020

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

*Garota de Ipanema*

Ixone Barandiarán Gallego

Zure esku zikinek, zure irribarre maltzurak eta mugitzeko zeneukan moduak berdin jarraitzen zuten, ezer aldatu ez balitz bezala. Eta orduan leku hartan orain dela asko izandako pentsamendu hura bera burura etorri zitzaidan. Zure arteaz maiteminduta nengoen, eta egia esanda zutaz ere. Gogoratzen dut nola batzuetan, gure momentuan, zure beharra izaten nuen, bizipenak partekatzeko, zurekin hitz egiteko, zurekin batera ikasi ahal izateko, baina askotan zuri begira geratzearekin aski neukan. Begiratzen zintudan eta zer pentsatzen ari ote zinen galdetzen nion neure buruari, beti zerbait bururatzen ari zitzazula zirudien, baina zaila egiten zen asmatzea buru hartatik atera ahal ziren ideiak.

Baina denbora pasa ondoren, orain dena desberdina zen eta, nolana ere, gure artean berdin jarraitzen genuen. Egoera lehen bezala bilakatzea desiratzen nuen, eta era batera edo bestera lortzen ari ginen, baina Berlin nire zain zegoen eta ez nuen nire bizitzako aukera galdu nahi. Aldi berean, hau gure azken aukera zen. Azken aukera elkarrekin egoteko, azken aukera bizipenak gogora ekartzeko eta azken aukera gure artean agur esateko, bortitza zirudien arren.

Ferragial kalean ginen, non bestela. Leku hark zerbait berezia zeukala bezala sentitzen nuen, batez ere hortik pasatzen nintzen guztietan zure ondoan nengoelako. Jende asko pasatzen ez zen kaleko paretaren zati txiki batean jarri ginen, kolore beltza eskuetan nuela, eta zuk, berdea eta horia. Kaleak

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

nahiko hutsik zeuden, espaloia nahiko malkartsua zen eta txuriak izan beharko luketen paretak orain grisak ziren, hala ere Lisboako zonalderik hoberena zen zalantzarik gabe. Zurekin neuzkan oroimenetan bezalaxe disfrutatzen nengoen, bizitzan gustukoena daukadana egiten. Baina bat-batean dena okertu zen.

-Ez gelditu Goazen, azkar - bihotza ohikoena baino azkarrago zihoan.

-Heldu gogor nine gerritik, atzetik dauzkagu.

-Kontuz. Ez!

Sirenak, ospitaleko argiak, kaosa eta altxatzean zu. Soilik itxoin ahal nuen eta itxaropena mantendu.

Batzuetan bizitza mus partida bat bezalakoa da: Apustu egin behar da hamarretakoren bat lortzeko. Oraingoan jokatu baino gehiago ordago bat botatzen ari nintzen, eta ez nion huts egiteari beldurra izango ez atzera botatzeari ere, bai irabazi bai galdu, merezi izango zuelako, Gurasoei azken besarkada eman eta trenaren barrunbean sartu nintzen, hurrengo jokaldiaren esperoan.

Bidaia ez zitzaidan oso luzea egin, gehien bat beti gainean daramadan libreta eskura nuelako eta ausaz aukeraturiko treneko jendeari erretratuak egiten hasi nintzelako. Bizitzan, aldi berean, urduri eta hunkituta egon naizen une bakarra megafonotik nire geldialdia entzun nuenean izan zen. Batetik, banekielako bizitzako etaparik onena zetorrela, baina bestetik bakarrik egoteak sabeleko mina sorrarazten zidalako. Behin tren geltokitik atera nintzela eta tranbia hartu nuela Portugaleko edertasunari antzeman nion, lehiotik begiratzen nuen bitartean. Maldak bazter gurtietan, eraikin zaharrak, pareta koloretsuak... eta xarma berezi hark Lisboako giroarekin batera maiteminduta bezala utzi ninduen. Alfama auzoan jaitsi nintzen eta irribarre inozo batekin alokatuta neukan apartamenturantz ibiltzen hasi nintzen. Ferragial kaletik pasatzen ari nintzenean, margolari talde txiki bat ikusi nuen eta ea zer egiten zuten behatzera geratu nintzen. Graffitiak egiten hasten zirela ohartu bezain pronto, bitan pentsatu gabe, hurbildu nintzen beraiekin hitz egitera. Ez dakit zergatik

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

baina nabaritzen nuen Lisboako graffiti munduan sartzeko primerako aukera izango zeta, eta hala izan zen. Hasieran, han zegoen neska bakarrari hurbildu nintzaion, eta nire portugaleria kaxkarrarekin berarekin hizketan aritu nintzen bizpahiru minutuz, baina berehala zure begirada nigan jarrita sumatu nuen. Ez nizun hitzik esan eta edozein modutan ere zugaran zerbait berezia sumatu nuen. Azkenean neska eta biok moldatu ginen eta hurrengo egunean elkar ikusiko genuelakoan geratu Olen.

Hurrengo egunean neskak Lisboako lekurik politenak erakutsi zizkidan, baita margotzeko zonalderik politenak ere. Gaua iristean, telefono zenbakiak partekatu genituen eta poz-pez nire pisura bueltatu nintzen. Gau hartan sortu zitzaidan jakin-minarengatik ez balitz, ez zintuzkedan inoiz ezagutuko, ezta inoiz istorio hau kontatuko.

Motxila hartu eta nire margoekin kalera atera nintzen Ferragial kalerantz, non neskak adierazi berri zidan kale ona zela margotzeko. Ez nuen nahi marrazki izugarri handia egin, soilik gauza berriak probatu nahi nituen, gutxinaka teknika berriak probatzeko, eta Lisboako kaleetan gutxinaka murgiltzea, zein arrastoa uztea ziren helburu. Bat-batean, nire ondoan zu ere margotzen zeunden, eta poliki-poliki niregana hurbildu zinen, ni nengoen tokira iritsi arte. Agian kasualitate hutsa izan zen, baina bazirudien zuk jadanik bazenekiela ni hor nengoela. Ustekabean, urrutian kotxe baten motorra entzun zen (poliziena seguruenik), eta ia erreakzionatzeko denbora izan gabe, eskutik heldu zenidan eta motxila sorbaldan nuela besotik tira egin zenidan korrika abiatzeko. Etxarte batean izkutatu ginen kotxearen soinua jada entzuten ez zen arte. Orduan, berriz arnastu ahalko balu bezala sentitu nuen eta zu bitartean barrezka hasi zinen. Berriz ere nire portugaleria kaxkarrarekin ahal nuen bezain ondo eskerrak eman nizkizun eta neure burua aurkeztu nuen. Baina oso azkarra zarenez gero, momentuan sumatu zenuen nire herriko doinua eta segituan euskaraz hitz egiten hasi zinen. Betidanik elkar ezagutuko bagenu bezala hitz egiten hasi ginen eta ez daukat argi, baina ziur aski momentu horretan hasi nintzen zugaran zerbait sentitzen.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Hortik aurrera dena erraz eta arin joan zen. Zu orain zela lau urte Portugalen bizi zinen eta leku hartako zoko gurtiak erakutsi zenizkidan. Egunero elkarrekin gosaltzen genuen, Belemeko pastelak egiten erakutsi zenidan, Portugaleko ohiturak irakatsi zenizkidan, baita hizkuntza ere, eta gero nire enkarguekin laguntzen zenidan. Miresten nuen zure margotzeko era, eta gozatzen nuen ikusten zintudanean zure kabuz, musika topera entzuten zenuen bitartean, mural izugarriak margotzen. Gogoratzen dut, behin, kafetegi bateko terrazan ginenean, bakoitza bere pentsamenduetan murgilduta, marrazten genuen bitartean atzetik bossa nova-ko Ganata de ipanema entzuten zela eta orduan, sinpletasun horretan izan zen konturatu nintzenean inoiz baino zoriontsuagoa nintzela. Zalantzarik gabe, Lisboan igarotako urte hark eragin zidan berriz ere gauza berriak probatzeko gogoak izatea, sormena libre uztea eta arriskatzearen beldurra galtzea. Modu batera edo bestera zuri esker izan zen, zu izan zinelako sugarra piztu zenidana, Orokorrean enkargu asko jasotzen nituen eta diru nahiko ateratzen nuen, gainera nire denbora librean kalean graffitiak egiteko denbora neukan eta batzuetan hirian zegoen margolari talde batekin elkartzen nintzen. Edonota ere, lana zela eta, gutxinaka bereizten hasi ginen eta oraindik ere nahiko elkar ikusten genuen arren, gauzak ez ziren lehen bezala.

Imajinaezina zirudien arren, Lisboara bizitzera mugitu nintzenetik dagoeneko urte eta erdi igaro zen. Azken hilabeteetan proiektu handi batean lan egiten egon nintzen eta gogoratzen dut nola udaberriko goiz epel batean, bat-batean telefonoa jotzen hasi zen eta dei hark dena aldatu zuen. Nire proiektuaren erakusketa egin nahi zuten, bai Lisboan, bai Oporton!

Azkenean sentitzen nuen margolari bezala etorkizuna neukala, eta ez nuen inolaz ere aukera hura galduko. Hortaz, laburbilduz, Portugaleko hiri batetik bestera bidaiatzen egon nintzen denbora luzez proiektu desberdinetan sartuta. Ordea, horrek eragin zuen gure erlazioa gero eta txikiagoa izatea. Ez naiz asko luzatu nahi hurrengo urtean Portugalen zehar bizi izan nituen bizipenekin, ez baitira interes askokoak.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Hala ere, denbora horretan egindako lanari esker beste dei bat jaso nuen, oraingoan zuzenean Berlinetik. Izugarritzko eskaintza eskaintzen zidaten eta zalantza nahikotxo izan ondoren, eskaintza onartzea erabaki nuen. Berehala deitu nizun, denbora luzez emandako laguntzarengatik eta erakutsitako guztiagatik sentitzen nuelako merezi zenuela lehenbailehen jakitea. Ez dizut gezurrik esango, zure ahotsa entzuterakoan pinpilinpauxak sentitu nituen eta gau hartan loak hartzea kostatu zitzaidan, hurrengo egunean kanpaldi batera doan ume txiki bati bezala.

Goizean, Bragatik Lisboara zihoan lehen autobusa hartu nuen eta eguerdia aldera iritsi nintzen arren, niretzako autobus horren barruan egunak pasa balira bezala sentitu nuen. Autobusetik jeitsi orduko tranbia hartu nuen, Alfama auzoan jaitsi nintzen eta Ferragial kalerantz abiatu nintzen. Gertaerak nire lehen aldian bezala errepikatzen ari ziren arren, dena desberdina zen. Iristerakoan, zu hor zinen eta biok korrika hasi ginen besarkada luze batez bata besteari agurtzeko. Denbora batez hitz egiten egon ondoren erabaki genuen elkar ezagutu genuen egun horretako graffitian berriz ere gure marka uztea, atzokoak ziren egunak berriz ere birgogoratzeko. Berriz ere margotzen ikusi zintudanean, ohartu nintzen zer puntutaraino faltan botatzen zintudan, baina dagoeneko denbora atzera botatzeko berandu zen eta nire bidea jarraitu behar nuen.

Bat-batean, urrutitik poliziaren kotxea ikusi nuen, eta nik zure motorrera igo banintzen ere, zu ez zinen hasieran konturatu eta erreakzionatu zenuenerako, polizia atzetik geneukan, Oso aztoratuta jarri zinen. Abiadura izugarria hartu zenuen. Kontuz izateko esan nizun. Eta bihurgune bat hartzerakoan...biak lurrean botata geunden.

Altxatzean, ospitaleko ondoko ohean lotan ikusi zintudan eta hark lasaitu ninduen. Baina medikuak iristerakoan amnesia sufritzen ari zinela esan zidaten.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

BIGARREN SARIA:

Orain nire Berlineko apartamentuan nago zuri kontakizun hau idazten, atzetik Garota de Ipanema entzuten den bitartean. Ba, bai. Oraindik ere abestia entzuten dudanean, berehala Portugaleko kafetegi hartara garraiatzen nau eta oroitzenak berriz nire burura itzultzen dira. Espero dut noizbait eman zenidan laguntza guztia ordaindu ahal izatea, baina momentuz kontakizun hau uzten dizut oroimenak gogora ekartzen joateko. Hau zuretzako da, zuri esker botatako ordagoa irabazi nuelako.